

• ASTERKO GAIA •

Tolosaldeko Osasungintza Publikoa vs. kontzertatua

Tolosako espezialitate anbulatorioa eta Asuncion Klinika parez pare. Tolosaldea da eskualde-ospitalerik ez duen bakarra Gipuzkoan. Bi zentro hauek (publikoa bata, kontzertatua bestea) eskaini dute espezialitateko arreta gaur arte, baina anbulatorioa hustuz joan dira arduradunak, eta klinika indartzen. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aurreikusten du hiru urteren buruan espezialitate denak Asuncionera pasatzea. Aldiz, anbulatorioa indartzearen eta eskualde-ospitale publiko bat jartzearen alde ari da lanean Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataforma.

ESTITXU EIZAGIRRE



TOLOSALDEA eskualdeak 65.191 biztanle ditu, 31 udalerritan banatuta. Osasun arloan, bere berezitasunak dituela kontatu du Elena Elosegui Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako zuzendariak: “Lehen Mailako Arreta zerbitzuak [famiako medikua] Osakidetza ematen ditu, eta Arreta Espezializatuak, berriz, Osakidetza eta Asuncion klini-

kak: lehenengoak, espezialitateak dituen anbulatorio baten bidez, non Donostia Ospitaleko hainbat espezialistak zerbitzua ematen duten; eta bigarrenak, ospitalizazio ugari eta anbulatorioko arreta espezializatuaren zati handi bat bermatuz. Klinika horrek zerbitzu-eskaintza txikiagoa du Gipuzkoako (Mendaro, Arrasate, Bidasoa eta Zumarraga) eskual-



Iñigo Dendaluce, Asuncion Klinikako gerentea.

deetako ospitaleek eskaintzen dutena baino. Gainera, zerbitzu eta espezialitate horietako batzuk bikoiztuta daude, Donostia Ospitaleak eta Asuncion klinikak aldi berean ematen dituztelako”.

Iñigo Dendaluce Asuncion klinikako gerentea da, eta espezialitateen bikoizketa hori azpimarratzen du, Osasun Sailak berrantolaketa egiteko duen arrazoi nagusitzat: “Osasun Sailaren helburua zerbitzuen hornidura batzea da, arrazionaltasuna emanaz. Zentzugabea da espezialitateak bi adarretan ematea, hau da, gaixo bat Tolosako anbulatorioa joatea kardiologiara eta beste bat Asuncionera. Orain hitzarmen berria arautu nahian ari gara, guk arreta espezializatu osoa hartuko genuke, eta anbulatorioan Lehen Mailako arreta eskainiko litzateke”.

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataforma (TOPA), aldiz, ez dago ados espezialitateak klinika pribatuarekin kontzertatzearekin. Bertako kide den medikuak (nahiago du izena pribatutasunean babestu) dioenez: “Asuncion Klinikak aurrerantzean eskualde ospitale baten funtzioa beteko duela esaten digute. Guk ez dugu funtzio hori beteko duen ezer nahi, guk zuzenean eskualde-ospitale publikoa nahi dugu. Gipuzkoako gainerako biztanleek daukaten bezala, euren moduan ordaintzen baititugu gure zergak. Tolosaldeak benetako eskualde-ospitalea izango badu, irtenbidea Debako edo San Eloyko ospitaleen eredia jarraitzea da, nahiz eta hori eginda batzuei pastela bukatuko zaien”. Dendaluceren arabera: “Gaixoa nahasten ari gara diskriminatuta dagoela esaten diogunean, ez dela zerbitzu publikoa eskaintzen eta osasuna pribatizatzen ari



Elena Elosegui, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako zuzendaria.

dela... Zerbitzu publikoa eskaintzen ari da, baina gestioa da pribatua. Nik alaba ikastolara eraman dezaket, eta zerbitzu publiko bat jasotzen ari da, baina ikastetxe kontzertatu batean. Osasunarekin berdin”.

TOPAko medikuak berretsi du osasunaren gestioak publikoa izan behar duela: “Sistema publikoan baliabide denak osasunarentzat direlako. Baina enpresa pribatu batera iristen diren diruen %30 enpresarentzako dira, negozioa egiteko. 7 eurorekin ezin da eman 10ekin ematen den arreta. Hori zertan gauzatzen da? Alde batetik langileek baldintza okerragoetan egin behar dute lan, eta baldintza txarragoak badituzu arreta txarragoa eskaintzen duzu, nahi eta nahi ez. Bestetik,

zerbitzuak murrizten dira, ezin da zerbitzu bera eskaini diru gutxiagorekin. Orain esaten digute ezetz, arreta bera izango dela... baina iritsiko da momentu bat esango digutena ‘dirurik ez dugunez, ezin dugu arreta osoa eman’. Zentro pribatu batek inoiz ezingo du ospitale publiko batek adinako zerbitzurik eman, pribatua errendimendu ekonomikoa lortzera bideratuta dagoelako, eta publikoa herritarren osasuna bultzatzera bakarrik”. Dendaluce gerenteak dio dirua ez dela euren lehentasuna: “Guk egun 65.000 kontsulta egiten baditugu, Tolosaldeko espezialitateen ardura guregan hartuta %80 handituko genuke kontsulta kopurua. Noski, horrek bere ondorio ekonomikoa izango du, baina ez dugu oraindik baloratu, ez baita orain gehien kezkatzen gaituen gaia. Guretzat lehentasuna zerbitzu bikaina eskaintzea da, baina logikoki, errentagarritasun eta efizientzia kriterioekin”. TOPAko medikuak zera aurreikusi du: “Esperimentuak hondoa jotzen duenean, klinika

“Asuncion Klinikak apurka-apurka garatuko du eskualde-ospitale batek daukan zerbitzu-eskaintza”

ELENA ELOSEGUI, OSASUN SAILEKO GIPUZKOAKO ZUZENDARIA

«Proiektu berritzailetzat eskaintzen zaiguna, enpresari pribatu baten aspirazioa da»



Rafael Cerdán Osasun sailburu-orde izandakoa, Asuncioneko zuzendaritza karguan dago orain.

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak *Ignominia bati buruzko gogoetak, edo nola pribatizatu Osasuna alebosiaz eta pausoz pauso* artikulua zabaldu du, Asuncionen lan egin zuen mediku batek idatzia. Bertan kontatzen denez, planaren atzean trama oso hau dago:

“90eko hamarkadaren erdialdean, Asuncioneko gerente izendatu berri zen Jesús Gómez Montoyak behin baino gehiagotan adierazi zuen Tolosaldeko osasun arreta kudeatzeko nahia. 2000. urte aldera, orduan Osasun Saileko Gipuzkoako zuzendaria zen Rafael Cerdánek, Tolosako anbulatorioko langileei adierazi zien eskualdeko arreta espezializatua Asuncion klinika-

ri uzteko asmoa. Orduetik hona Asuncion klinika sustatu dutela ikusi dugu, espezialitate anbulatorioaren kaltean, zeina pixkanaka desmantelatzen joan den.

(...)

Azken urteetan, Rafael Cerdán Osasun sailburu-orde zela, Asuncion klinikak pausoak eman ditu eskualdeko osasunak klinika honekiko gero eta dependentsia handiagoa izan dezan. Norabide honetan egin da Lehen Mailako arretako anbulatorioen eta klinikaren arteko lotura informatikoa, Tolosan eta Andoainen kontsultak egiteko irekitako Asuncioneko zentro berriak...

Beste datu esanguratsu bat da José Agustín Aguirrek Asuncion klinikako (jabego pribatua) zuzendari mediku postura egindako “desenbarkua”, Donostiako ospitalean (jabego publikoa) kargu bera utzi ostean.

Eta aurrekariak borobilduz, gaur egun Rafael Cerdán Asuncion klinikako zuzendaritzan ikusten dugu. Hau da, Osasun Saileko Gipuzkoako zuzendari izatetik, Osasun sailburu-orde izatera pasa zen eta handik Asuncion klinikako zuzendaritzara.

Ondorioz, orain proiektu berritzailetzat eskaintzen zaiguna, enpresari pribatu baten aspirazioa da: bera bakarrik edo besteekin batera, pixkanaka plan ezkutua garatzen joan da osasun publikoko arduradunekin elkarlanean, hamar urte baino gehiagoz.

(...)

Askoren beldurra da hau entsegu bat dela, aurrerantzean emango diren pribatizazioena. Ur publikoetan zein pribatuetan igeri egiten duten gestoreek bultzatuko dituzte pribatizazio horiek, nonberaren onuretan pentsatuz eta ez herritarrenean”.

privatuan diru publiko gehiago sartzea tokatuko zaigu, krisi honetan hamaika kasutan ikusi dugun bezala”.

Hiru urteren buruan espezialitate denak Asuncionera pasako dira

Tolosako Anbulatorioko langileek (hauek ere izena pribatuan mantentzea nahi dute) diote espezialitateak Asuncionera pasatzeko prozesua ez dela berria, 2007tik datorrela. Elena Elosegui kontatzen duenez, “2007ko urriaren 29an, Osasun Sailak Legebiltzarrerara igorri zuen ikerketa-proposamen bat osasun-eskualde horretarako, plangintza eta antolakuntzako hiru proposamen zituena. Luze eztabaidatu bazen ere, aurreko Jaurlaritzak ez zuen ezein erabakirik hartu. Egungo planteamenduak hiru proposamen horietako bat jasotzen du”. Alegia, 2007an EAJk proposatu eta PSOEK kontra bozkatu zuen planteamendu hura da orain PSOE aurrera eramanean nahian ari dena. Anbulatorioko langileek

salatzen dute proposamen hura onartu ez bazen ere, praktikan espezialitateak Asuncionera traspasatzeko urratsak eman direla geroztik: “Bere garaian anbulatorioa eraberritu egin zen, azpiegiturak jarriz kirurgia txikiak bertan egiteko, endoskopiak, eta abar. Baina prestatuta egon arren, hori guztia sekula ez zen bertan egin, arduradunek gaixoak Asuncion klinikara bideratzen baitzituzten prozedura hauek egiteko. Oftalmologiako plaza bakante geratu zenean, arduradun berberak Asuncionera transferitu zuten postu hori, nahiz eta espezialistak baziren anbulatorioan kubritzeko prest. Duela urte gutxi Urologiako plaza libre geratu zen, baja luze baten ondorioz. Kasu honetan ere ez zen Osakidetza ordezkorik ekarri; Asuncion klinikari eman zitzaion, eta hauek espezialistarik ez zuten, Zumarragako ospitaleko (publikoa) urologoa kontratatu zuten. Honek eszedentzia hartu zuen zentro pribatura pasatzeko, eta bertan Osakidetza gaixoak hartzeko.



OSASUNPUBLIKOA.BLOGSPOT.COM

Baja bukatu zitzaionean, Tolosako ambulatarioko urologoa berriro hasi zen Osakidetzan, baina ez bere lekua zuen Tolosako ambulatarioan, Donostian baizik. Aldi berean, Asuncion klinikan hartzen zituen Tolosaldeko gaixo batzuk, kontsulta pribatuan. Tolosako ambulatarioko errehabilitazioa ere gutxiengotara murriztu dute, eta Asuncionera pasa. Ambulatorio honek askoz espezialitate gehiago emateko gaitasuna badauka, baina hustutzen ari dira pixkanaka”.

Dendalucek zerrendatu dizkigu planaren arabera Asuncionek beregain hartuko lituzkeen Tolosako ambulatarioko espezialitateak: “Kardiologia, dermatologia, digestiboa, endokrinologia, neumologia, neurologia, ginekologia, kirurgia orokorra, oftalmologia, otorrinolaringologia, traumatologia eta errehabilitazioa. Espezialitate hauek baditugu jada Asuncionen. Asmoa da denborarekin aktibitate horiek denak guk xurgatzea”. Pertsonala eta azpiegiturak handitu beharko dituzten galdetu diogu: “Pertsonala handitu beharko dugu, mediku espezialista gehiago beharko dira, baita auxiliar eta asistentzialak ere. Klinika handitzeko plana martxan daukagu eta uda ostean hasiko gara lanekin: eraikin berria egingo dugu egungoari itsatsita. Sotoa eta hiru solairu izango ditu. Ospital osoa berrantolatuko dugu, eta 3.000 metro koadro handituko dugu gure eskaintza asistentziala. Lekua ez da arazo izango”.

Zerbitzu berriak Asuncionek eskainiko ditu

Elena Elosegui plan honekin lortuko diren onuren artean aipatzen du “egun ez dauden zerbitzuak izatea, komunitatetik gertu (etxeko ospitalizazio-zerbitzua, azpiakutuen unitatea eta etxeko errehabilitazioa)”. Dendalucek

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak 11.000 sinaduratik gora bildu ditu, “Osakidetzak Tolosako espezialitateak pribatizatu egingo ditu” lemapean.

“Guk garbi dugu hau lehenbiziko urratsa dela. Eta bigarrena kopagoa izango da. Hau plan pilotoa izango da, eta ongi ateratzen bazaie, EAE osora zabalduko da”

TOPA PLATAFORMAKO MEDIKUA

honela azaldu digu zerbitzu berri horiek zer diren: “Etxeko ospitalizazio-zerbitzua zera da, gaixoa egun gutxiagoz ospitalizatuta egon, eta ospitalizazioko azken egunak etxean pasatzea. Bi-hiru mediku eta hainbat erizain etxez etxe aritzen dira bisitak egiten. Zerbitzu hau ospitale probintzialak egiten du orain, eta Asuncionek beregain hartuko luke. Etxeko errehabilitazioaren bidez, zentrorra etortzeko arazoak dituzten gaixoei errehabilitazioa etxean egiteko aukera ematen zaie. Hori Gipuzkoan erabat berritzailea da. Eta azkenik, azpiakutuen unitatea: gaixo batek ospitaleko arreta osoa jaso duenean baina etxera joateko moduan ez dagoenean, beste zentro batera joaten da, bere etxera edo erresidentziara itzuli aurretik. Gipuzkoan zerbitzu hori Donostian bakarrik ematen da (Matia). Guk 12-14 ohe izango genituzke azpiakutuen unitatean”.

Kopagoa ekarriko du edo ez?

Zeren arabera ordainduko zaio Asuncioni aurrerantzean? Elena Elosegui adierazi digunez: “Klinikari finantzaketa egokia emango zaio, bere biztanleria kontuan hartuta; eta emaitzak ebaluatzeko esparrua oso zehatza izan beharko da. Ez da inondik inora onartuko Asuncion Klinikak ezer kobratzerik, Osakidetzan estaldura duten zerbitzuen trukean. Osasun-asistentzia doakoa izango da, orain arte bezala”.

Dendalucek dioenez: “Aurrerantzean zeren arabera ordainduko den, hori da oraindik zehaztu gabe dagoena. Ordainketa kapitatioa planteatzen ari da Osasun Saila, hau da, Tolosaldean hainbeste biztanle dago, eta biztanleko hainbeste bat ordainduko dizut, amulategiko asistentziarako. Baina ez dago itxita”.

TOPAko medikuak dioenez: “Orain arte ekintza mediko bakoitzeko ordaindu die Osasun Sailak: Asuncionen analisiak egiten dizkizutela, ba ordaintzen diete hainbeste, erradiografia bat egiten dizutela, ba hainbeste. Modu horretan, klinikari ahalik eta zerbitzu gehien ematea interesatzen zaio. Eta erabiltzaile batzuei ere hori interesatzen zaie

(jende bati gustatzen zaio kolpe bat hartu duela-eta erresonantzia magnetiko bat egitea): gosea eta jateko gogoa batzen ziren. Orain *per capita* ordainduko da, alegia, kartilako. Beraz, diru kopuru finko bat iritsiko zaie urteko. Ondorioz, klinikari interesatuko zaiona ahalik-eta zerbitzu gutxien ematea izango da. 100 euro jasotzen badituz, hobe 40 gastatzea 50 baino”.

Ordainketaren harira, harago doaz plataformakoak: “Guk garbi dugu hau lehenbizi-

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataforma

Hogei erakunde hauek osatzen dute: Ezker Abertzalea, Aralar (eta Tolosako Aralar) eta Ezker Batua alderdi politikoek; ELA, LAB, CCOO, UGT eta EHNE sindikatuek; Amarotz auzo elkartea, Bonberenea, Tolosako denbora-bankua, Arpegi eta Zahartzaro Duinaren aldeko plataforma herri ekimenek; genero berdintasunaren aldeko Bilgune Feministak eta Berdinbidek; Euskal Herria



Sozialista, Gazte Independentistak eta Herria Abian mugimenduek eta Osasun Publikoko langileek.

Eskualde-ospitale publiko baten aldeko 12.000 sinaduratik gora bildu dituzte (maiatzaren 5ean) eta manifestazioa deitu dute maiatzaren 14rako (12:00etan Tolosako Triangulo plazatik hasita). Informazio gehiago euren blogean: <http://osasunpublikoa.blogspot.com>

ko urratsa dela. Eta bigarren urratsa kopagoa izango da. Hau izango da plan pilotoa, eta ongi ateratzen bazaie, gero EAE osora zabalduko dute”. Dendaluceri kopagoaz galdetu diogu zuzenean: badago arriskurik gaixoari tratamendua bukatzeko (konplikazio bat egon delako eta abar), eta kostuak beregain hartu behar izateko? “Ez, batere ez. Printzipioz, Osasun Sailak hartuko lituzke beregain konplikatutako kasuen kostuak. Defizitarioa bada, horrek ez du inoiz gaixoengan eraginik izango. Gaixoak ez du inoiz ezer ordaindu beharrik izango, zerbitzu publikoa delako”.

“Defizitarioa bada, horrek ez du inoiz gaixoengan eraginik izango. Gaixoak ez du inoiz ezer ordaindu beharrik izango, zerbitzu publikoa delako”

**IÑIGO DENDALUCE,
ASUNCION KLINIKAKO GERENTEA**

Zein puntutan dago plana?

Elena Elosequik dioenez: “Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordeak otsailaren 8an onartu zuen, PSE eta EAJ alderdiek sinatuta, legezkoa ez den proposamen bat –Aralar taldeak aurkako boza eman zuen–; bertan eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzari osasun-asistentzia plan bat azpieskualde honetarako, hornidura mistoko ereduaren alde [Lehen Arreta publikoa eta espezialitateak eta ospitalizazioa kontzertatuak] egiten duena, Donos-

tia Ospitaleko langileen eskubideak errespetatuz. 2011n, aurrera egin nahi dugu honako fase hauetan: eguneratu beharko da Osasun Sailaren eta klinikaren arteko ituna. Asuncion

Klinikak apurka-apurka garatuko du eskualde ospitale batek daukan zerbitzu-eskaintza (esaterako, Bidasoa Ospitalearen eskaintza)”.

TOPAko kideentzat, orain da mugitzeko garaia: “Eurek ere ez daukate hain garbi: bi irudiak ematen ari dira aldi berean, izango duen erantzunaren beldur dira. Erreakzioaren

arabera atzera bota daiteke plana, aurrera egin, edo are pauso gogorragoak eman pribatizazio eta kopagorantz. Hau ez dago erabakita, eta horma sendoagoak erori izan dira”.

Plataformakoek maiatzaren 5ean mahai-ingurua antolatu zuten, herriko alderdi politikoei gai zehatz honen gainean galdezkeko: “Oso gai garrantzitsua da, eta alderdi politiko guztiei eskatu diegu posizionatzeko, argi esateko zer osasun motaren alde dauden eta zer egiteko prest dauden gai honetan. Biztanleek jakin egin nahi dutelako botoa eman baino lehen”. Mahai-inguru haren kronika www.argia.com gunean duzu, erreportaje honi lotuta. ■

Ekain berri

Euskal Kulturaren sustraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11